

PAKISTAN ENERGIA TRANTSIZIOAN ZEGOEN, ERREGAI FOSILEN ETA KRIPTOTXANPONEN INTERESAK TARTEAN SARTU ARTE

Prekaritate global hirukoitza pairatzen dute Pakistanen, klimak, energia gabeziak eta finantza publiko arazoak elkarrekin eragindakoak, ba-koitzak bertze bien kalteak areagotzen dituela. Halere, arazoaz jabetu dira bertako agintariak eta bideratu dituzte aldaketak, nahiz eta praktikan lehentasun talka batzuk egon. Baina zor-peturiko gobernuaren aukerak murriztuak dira

nazioarteko merkataritzan, horrek erregai fosilen menpekotasuna iraunarazten duelarik. Bertze hainbat herrialde zorpeturen gisara, erregai fosilak beren lurzoruan egonez gero, horiek ustiatzera behartuak dira, finantza egiturek hala agindurik. Hortik, ezinbertzeko energia trantsizioa oztopatzen diete, klima larrialdian eta zorretan are gehiago sarturik utzita.

 NICOLAS GOÑI

Pakistan aktualitate betean egon zen 2022an, Indiarekin batera, bertan inoizko bero uhina pairatu zutelako, 50 gradu arteko tenperaturekin eta horien ondorio latzekin: fisikoki edo sozialki ahulenak direnen heriotzak, aire kutsadura, ur gabezia, elektrizitate eteteak, zabortegetan eta oihanetan suteak, aintzira glaziarren gainezkatzeak eragindako uholdeak, uz-tak erdiz murriztuak eta beror edo ega-rriz hildako abereak... Aski latza ez ba-litz, bero honek ezohizko intentsitateko montzoia sortu zuen, uholde erraldoiak eraginda eta horiek, berriz, heriotza gehiago, uzta suntsituak, azpiegitura an-deatuak, eta berriz elektrizitate eteteak.

Herrialde honetan elektrizitatea ez da kontu makala, gaur egun oraindik pakistandarren %8ak ez baitu batere argindarrik, bertze %15ak ez du horni-dura fidagarririk eta 2021etik elektrizitatearen prezioa %155 emendatu da; gizartean haserre areagotu du horrek. Muturreko eguraldiek eragindako kal-teek agerian utzi diete bai elektrizitate ekoizpena baita banatze sarea ere jasan-garri bilakatu behar direla. Iazko Mun-duko Ekonomia Foroan, Energia Tran-sizio Indizearen inguruan aztertutako 120 herrialderen artean Pakistan 113.

sailkatu zuten, oraindik betebeharrean urrun dagoela erakutsirik.

Halere, ekimenak martxan daude, eta Pakistango Gobernuak energia trantsi-ziorako inbertsio plana iragarri zuen aurtengo martxoan, NBK antolaturiko “Energia jasagarria denentzat” izene-ko foroan. Bertan, bere bide-orria aur-keztu zuen Pakistango Gobernuak, lau arlo biltzen dituen: bat, energia sistema garbiago eta erresilienteago baterako epe luzeko inbertsio plana; bi, prezio aldakorrek erregai fosilen menpekota-suna murriztuko duten energia berrizta-garriekilako konponbideak identifikatu, eta horren bidez, energia segurtasuna bermatu; hiru, bidezko trantsizioa sos-tengatu, lanpostu berdeak sortuta eta “deskarbonizatzen” dabilen munduan lehiakortasun industrialak babestuta; eta lau, finantza-bideragarritasuna indartu, energia azpiegiturretan inbertsioak era-karrita eta eraginkortasun arazo siste-mikoak konponduta.

OZTOPOAK BIDEAN

Halere, energia trantsizio xede horien lortzeko bidean oztopoak daude: Pakis-tan barnean, lehentasun desegokiak eta nazioartean, AEBek ezarritako merkata-ritza aduana zergak. Barneko lehenta-

sun desegokiei dagokienez, gobernuak 2GW esleitu die bitcoin kriptotxanpona-rentzako meatzeari eta adimen artifizia-leko datu zentro proiektuei.

Pakistanen dagoeneko, 40 milioi “kriptotxanpon zorro” daude izena emanda, eta kriptotxanponen sektorer-a mundu mailako inbertsioak ekarri nahi ditu finantza ministroak. Ekimen horrek kezkak eta kritikak piztu ditu, eta ez ba-karrik Pakistanen: maiatzean Nazioarte-ko Diru Funtzak gobernuari premiazko azalpenak eskatu zizkion asmo horren inguruan, kontuan harturik Pakistan NDFarekiko negoziaketa prozesu batean dagoela bere aurrekontuei dagokienez. NDFaren kezka nagusia kriptotxanpo-nen inguruko marko legalari buruzkoa da. Hau da, gaizki zehazturiko marko le-gal baten barruko proiektuetara elektri-zitate gehiegi bideratua izatea, eta hori, populazio osoak egunerokoan argindar nahiko lortzen ez duelarik.

Trantsizioak nazioartean duen ozto-poa AEBetatik dator: oinarritzko %10eko zergaz gain, Pakistandik inportatutakoa-ri %29 gehiago ezarri nahi zion Etxe Zu-riko errentariak apirilean, 90 eguneko etenaldia iragarri aurretik. Esportazioak kaltetuko lituzkeen tasa hori saihesteko gisan, petrolio AEBetatik inportatzen



"EZINBERTZEOA"

Klima justizia ez da bakarrik nahi bat, aukera bat, eztabaida bat edo hobespen politiko bat... IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak argi dio "ezinbertzekoa" dela. Argazkian, "pagatu zure zor klimatikoa" mezua zabaltzen dabil herritar bat klimaren aldeko protesta batean.

hastea mahaigaineratu du Pakistanek. Horrez gain, gobernuak AEBetatik bertzelako gaiak inporta ditzake, adibidez, doitasunezko aparatuak, soja, altzairua edota burdina. Erabaki hori Pakistanen bertan kritikatu da, ez baitu estatuaren finantza oreka lagunduko, ezta energia trantsizioa ere. Erregai fosilen menpekotasuna iraunaraziko du, eta alta, teoriarik, hori saihestea da Pakistango energia trantsizioaren bide orriaren bigarren arloa.

ZORRAREN ETA ERREGAI FOSILEN IRUZURRA

Finantza publiko arazoak dituzten eta erregai fosilen menpekotasunean atxikiak diren herrialdeen artean ez da bakarra Pakistan. Horren harira, Erresuma Batuko Debt Justice fundazioak duela bi urte *The debt-fossil fuel trap* (Zorren eta erregai fosilen iruzurra) izeneko txostena argitaratu zuen. Aztertu dute-

nez, zor maila altuak neurri handiko oztopoak dira erregai fosilak baztertzeko bidean Hego globaleko herrialde askorentzat. Fundazioko Tess Woolfendek dioenez, zorraren ordaintzeko diru sarrerak sortzeko, erregai fosilak ustiatzera behartuak dira herrialde asko. Kontua da, erregai fosildun proiektuek maiz ez dituztela igurikaturiko diru sarrerak ematen, eta horrela emendatzen dela are gehiago zorra. Halako egoeran dago Mozambike, ARGIAren 2906 zenbakiko *Mozambiken kontratatu zituen militarren isilpean gorde ditu Total multinazionalak erreportajeaz azaldu bezala*. Hango Justiça Ambiental taldeko Daniel Ribeiro programa koordinatzaileak dio herrialdearen zorra bikoiztu zela 2013an. Urte hartan egin zutena zera izan zen: gas ustiaketaren etorkizuneko irabazi estimatueta –edo kalkuluetan– oinarrituta, maileguak hartu, legebiltzarraren baimenik gabe. Ondo-

ko hiru urteetan gasaren prezioa asko apaldu zen, eta finantza-egoera kaskartu orduko, berriro hartu behar izan zituzten maileguak. Mailegu horiek zertan oinarritu ziren? Bertze behin, etorkizuneko balizko gas ustiaketaren balizko irabazietan.

"Erregai fosilengatik dugun zorra erregai fosilek ordaindu dezaten egituratzen dute, horrek gurpil zoro bat sortzen duelarik: norabide horretara behartuak gara eta ukatuz gero, ondorio latzak pairatzen ditugu", dio Ribeirok. Gurpil zoro hori gurpil handiago batean kokatzen da: klima aldaketak eragindako kalteek Hego globaleko herri askoren finantza egoera larritzen dute; eta zorpetuz gero, erregai fosilen ustiaketara behartuak dira, baina horrek are gehiago larritzen die klima aldaketa. Horregatik ere litzateke herri guzien etorkizunarentzat mesedegarria Hego globaleko herrien zorraren ezabatzea. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com

